

2021eko Urtarrila-Maiatz
Enero-Mayo 2021

Ikuskizunen egitaraua | Programa de espectáculos

ermuantzokia.



URTARRILAREN 4^{an} ENERO

Go!azen 7.0. PAUSOKA

A las 12:30 eta 16:00etan | Entrada: 6 €

Zuzendaritza / Dirección: Ainhoa Ayerbe Antzezleak / Intérpretes: Lorea Intxausti, Danae Riaño, Aitziber Errauzkin, María Redondo, Lander Lacalle eta Markel Sainz. Iraupena / Duración: 80 min. + 5 urte / años

Orain arte antzokietan sekula egin ez dugun ikuskizun berri batekin gatoz aurten: kontzertua!

Denboraldi honetako 6 aktore arituko dira oholtza gainean abesten, dantzatzen eta telesailari buruzko kontu dibertigarriak azaltzen.

Denboraldi berriko abestiak, aurreko denboraldietan kantatutako abesti ezagunenekin uztartzen dituen emanaldia da hau.

Este año venimos con un nuevo espectáculo que nunca hemos hecho hasta ahora en los teatros: ¡concierto!

6 actores de esta temporada cantarán, bailarán y explicarán los divertidos temas de la serie sobre el escenario.

Este es un concierto que combina canciones de la nueva temporada con los temas más conocidos de temporadas anteriores.

KONTZERTUA / CONCIERTO
(Euskaraz)



URTARRILAREN 6^{an} ENERO

Musikarium. BAGA-BIGA

A las 17:00etan | Sarrera /Entrada: 4€

Auerkezle eta zuzendari artistikoa / Presentador y director artístico: Oihan Vega Zuzendari musikala / Director musical: Xabier Zabala Musikariak / Músicos: Xabier Zabala, Luis M. Moreno, Igor Torre eta Igor Telletxea. Iraupena / Duración: 60 min. + 4 urte / años

HAURRENTZAKO MUSIKALA /
MUSICAL INFANTIL
(Euskaraz)



Musikarium ikuskizuna haurrei zuzendutako antzerki eta musika-kontzertu didaktikoa da. Haurrek, modu didaktiko eta pedagogiko baten bidez eta musikaren munduan murgilduz, hainbat musika eta musika-tresna ezagutuko dituzte eta Euskal Herrikoekin konparatuko dira, horien desberdintasunak eta antzekotasunak azalduz.

Musikarium es un concierto didáctico teatral dirigido al público infantil. A través de una forma didáctica, pedagógica y de inmersión en el mundo de la música, los niños conocerán diferentes instrumentos musicales y se compararán con los de Euskal Herria, explicando sus diferencias y similitudes.

URTARRILAREN 15^{ean} ENERO

Eñaut Elorrieta.

A las 19:00etan | Sarrera / Entrada: 10€

Irteera argiak” Eñaut Elorrietak azken urteotan garatutako ibilbidearen ondorio zuzena da. Oso gaztetan kantuan hasi zenetik urrats bat harago egin du proiektu bakoitzean, beti gorantz, sorkuntzan, interpretazioan, eskenatokiaren gaineko agerpenetan eta, batez ere, publikoaren aurreko pertzepzioan.

Aukera ezinhobea du publikoak lan berri honen eta kantariaren eskutik abesti berrion zapore gozoa bezain sentikorra eskuzabalki jasotzeko. Lan berria erabat sinesgarria eta atsegina baita, eta neurri handi batean hunkigarria ere bai.

“Irteera argiak” es consecuencia directa de la trayectoria desarrollada por Eñaut Elorrieta en los últimos años. Desde que empezó a cantar muy joven ha ido un paso más allá en cada proyecto, siempre mejorando en creación, en interpretación, en manifestaciones sobre el escenario y sobre todo en la percepción ante el público.

El público tiene una oportunidad inmejorable para que de la mano de este nuevo trabajo y del cantante, pueda obtener generosamente el sabor dulce y sensible de estas nuevas canciones, pues este nuevo trabajo es completamente creíble y agradable, y emocionante en gran medida.

KONTZERTUA / CONCIERTO



URTARRILAREN 22^{an} ENERO

Como hace 3000 años. HÉCTOR ALTERIO

A las 19:00etan | Sarrera / Entrada: 10€

Testuak / Texto: León Felipe Zuzendaria / Dirección: Héctor Alterio Musika: José Luis Merlin Iraupena / Duración: 70 min.


Leon Feliperen heriotzaren 50 urteurrena den honetan Héctor Alterio agertokietara itzuli da, hari bizitza emateko.

Proposamena oso originala da, ez baititu poemak modu klasikoan esaten, baizik eta interpretatu egiten ditu, José Luis Merliren gitarraarekin batera, bere buruaz eta bere erbesteaz hitz eginez poetaren hitzen birtutez.

Héctor Alterio regresa a los escenarios para dar vida a León Felipe en el 50 aniversario de su muerte.

La propuesta es sumamente original, ya que no dice los poemas de una forma clásica sino que los interpreta, acompañado de la guitarra de José Luis Merlin, hablando de sí mismo y de su exilio a través de la palabras del poeta.

KONTZERTUA / CONCIERTO




URTARRILAREN 29an ENERO

Dani Fernández

A las 19:00etan | Sarrera/Entrada: 15 €

KONTZERTUA / CONCIERTO



Bi urte behar izan ditu Dani Fernandez kantari eta konpositoreak bakarkako lehen diskoa plazaratzeko. Lehenbizi, bi bira arrakastatsu egin ditu Espainian zehar, bere kontzertuetako sarrera guztiak hilabete batzuk lehenago salduta. Orain, «Incendios» diskoa errealitate bat da. Diskoa prestatzen emandako bi urteetan, barrera husteko eta terapia egiteko aukera izan du bere kanten bidez. Artistak dioenez, «ahalegin handiz ikasi dut gauzek batzuetan euren denbora behar dutela eta makina ez dela bortxatu behar» Hala, hasierako amorrua eta amore emateko gogoa orbaintzen ikasi du, eta orbainen gainean gai autobiografiko mordo bat sortu. Halaber, Andrés Suarez, Marwan, Luis Ramiro eta Diego Cantero «Funambulistaren» konposizio batzuk ere sartu ditu diskoan, bere erreferente nagusiak direlako. Horrela, desamodioz eta erresaka sentimentalez betetako tracklista osatu du.

Dos años se ha hecho esperar el primer trabajo en solitario del cantante y compositor Dani Fernández. Después de realizar dos exitosas giras por toda España, vendiendo todas las entradas para sus conciertos con meses de antelación siempre, “Incendios” ya es una realidad. Si de algo han servido estos más de dos años de preparación del disco -en los que el artista reconoce “haber aprendido, con mucho esfuerzo, a que las cosas a veces tienen sus propios tiempos y no hay que forzar la máquina”- es para convertir sus temas en un vehículo para desahogarse y hacer terapia. Ha aprendido a transformar esa rabia inicial y esas ganas de tirar la toalla en cicatrices sobre las que edificar un buen puñado de temas autobiográficos, a los que acompañan composiciones de Andrés Suárez, Marwan, Luis Ramiro o Diego Cantero “Funambulista”, a los que Fernández cita como grandes referentes y que han completado un tracklist repleto de desamor y resaca sentimental.

OTSAILAREN 5^oean FEBRERO

Ene ba!. TXALO

A las 19:00etan | Sarrera/Entrada: 10 €

Egileak / Autores: Matthieu Delaporte, Alexandre de la Patelliere Zuzendaritza / Dirección: Begoña Bilbao Antzezleak / Intérpretes: Ane Gabarain, Joxe Kruz Gurrutxaga, Mikel Laskurain, Alazne Etxebarría eta Asier Sota. Iraupena / Duración: 80 min. min.

Gure protagonistak aita izan behar du lehen aldiz. Aitatasuna ospatze aldera, bere arreba eta koinatuaren etxean afalduko du, familiako beste lagun batekin batera. Ana, bere bikotea eta ama-gaia berandu iritsiko da afaritarara.

Afaltzen hasi baino lehen Anaren zain daudela, aitatasunak sortzen dituen poztasun eta aldarte onak izango dituzte hizpide, ume jaio-berriari jarri behar dioten izena aditzera emango duen arte. Egundoko kalapita sortuko du izen berak eta eztabaidaren suak bildutakoak erreko ditu, etxeko giroa erabat gaiztatu arte... Ene ba! Trumoi hotsak eta txinpartak, baina guztia umore ikuspegi batetik atonduta.

Nuestro protagonista va a ser padre por primera vez. Para celebrarlo, acude a cenar a casa de su hermana y su marido, y un amigo de la familia. Ana, su pareja, llegará más tarde a la cena.

Antes de empezar a cenar, y mientras esperan la llegada de Ana, le plantean todo tipo de cuestiones sobre su futura paternidad y los cambios que suponen en la vida de una pareja, sin perder nunca el sentido del humor. Cuando le preguntan si ya ha escogido un nombre para el futuro niño, su respuesta deja a todos boquiabiertos... desde luego, no es para menos. A partir de ahí se genera un debate que va a crear un conflicto detrás de otro, cada cual más sorprendente e hilarante, y que cuestionará el carácter de cada uno y la relación entre todos los personajes.

ANTZERKIA / TEATRO
(Euskeraz)



OTSAILAREN 6an FEBRERO

Crusoe. MARKELIÑE

A las 17:00etan | Sarrera/Entrada: 4 €

Egilea /Autor: Markeliñe Zuzendaria / Dirección: Joserra Martínez Antzezleak / Intérpretes: Fernando Barado, Itziar Fragua eta Estibaliz Villa, Jon Koldo Vázquez Iraupena / Duración: 55 min. + 4 urte / años

Itsasoaren eta itsasoko munduaren zaporea duen uharte bakartitik, Crusoeek denbora eta itsasontziak igarotzen ikusten ditu, eta bat bera ere ez da geratzen. Crusoeek bizitza lasaia bizitzea lortzen du eta itsaso zabalean dagoen itsasontziak bezala, urrunean igarotzen ikusten du bizitza.

Markeliñen asko atsegin dugu testu klasikoak eta ezagunak erabiltzea, beste buelta bat emateko. Oraingo honetan, Dafoe eleberri klasikoa moldatuko dugu, bizitzari buruzko metafora bat egiteko, dibertigarria, iradokitzailea eta irudimezez beterikoa.

Desde una isla solitaria con sabor a mar y a mundo marino, Crusoe ve pasar el tiempo y los barcos sin que ninguno se detenga. Crusoe consigue vivir una vida apacible, una vida que, como un barco en alta mar, ve pasar a lo lejos.

En Markeliñe nos gusta utilizar los textos clásicos y conocidos para darle una pequeña vuelta de tuerca. En esta ocasión, adaptamos el clásico de Dafoe, para contar a través de tres intérpretes y un músico, una metáfora de la vida, sugerente, imaginativa y divertida.



OTSAILAREN 10ean FEBRERO

Zetak

A las 19:00etan | Sarrera/Entrada: 10 €

Zetak musika elektronikoaren proiektu bat da euskaraz, eta diziiplina anitzeko proiektu artistikoa, Pello Reparaz “Vendetta” taldeko abeslari ohiak sortua. 2019ko ekainaren 10ean ikusi zuen argia «Errepidean» abestiak, baina urte horretako abenduan argitaratu zen bandaren lehen albuma, “Zetak” taldearen izen berarekin.

“Zeinen ederra izango den” da bere disko berria, 19. kodean zehar egindako sormen jardueraren emaitza, non edertasuna bilatzea eta gure egungo errealitatearen aurrean jarrera positiboa izatea bere funtsezko osagaiak diren.

Zetak es un proyecto de música electrónica en euskera y proyecto artístico multidisciplinar creado por Pello Reparaz, ex vocalista del grupo “Vendetta”. El 10 de junio de 2019 ve la luz el sencillo «Errepidean» pero es en diciembre de ese mismo año cuando se publica el primer álbum de estudio de la banda utilizando como título el homónimo “Zetak”.

“Zeinen ederra izango den” es su nuevo disco, producto de su actividad creativa durante el confinamiento por el covid 19, en el que la búsqueda de la belleza y la actitud positiva ante nuestra actual realidad son sus ingredientes fundamentales.



KONTZERTUA / CONCIERTO

OTSAILAREN **19**^{an} FEBRERO

La coartada. MARÍA CASTRO, GORKA OTXOA Y MIGUEL HERMOSO.

A las 19:00etan | Sarrera/Entrada:15€

Egilea / Autor: Christy Hall Zuzendaria / Dirección: Bernabé Rico Antzezleak / Intérpretes: María Castro, Gorka Otxoa y Miguel Hermoso Iraupena / Duración: 90 min.

Ana muga-mugan bizi den emakumea da. Dibortziatuta eta iraganak atsekabetuta, lagunik onenari laguntza eskatu dio epaiketa batean lekukotza emateko prestatzen lagun diezaion, zalantzarik gabe bere bizitzako adierazpenik garrantzitsuena izango dena. Lekukotza horren mende egongo da, alaba bakarraren zaintza ez ezik, bere askatasuna ere. Gauean zehar, bere deabruekin izango dituen liskarrak erakutsiko digu noraino irits daitekeen bere beldurrik handiena (isiltasuna) saihesteko.

Ana es una mujer al límite. Divorciada y atormentada por su pasado, pide ayuda a su mejor amigo para prepararse a testificar en la que sin duda será la declaración más importante de su vida. De ella dependerá no solo la custodia de su única hija sino también su propia libertad. A lo largo de la noche, el enfrentamiento descarnado con sus propios demonios revelará hasta dónde es capaz de llegar para evitar el peor de todos sus miedos: el silencio....



OTSAILAREN **26**an FEBRERO

Arizona Baby

A las 19:00etan Sarrera/Entrada 10€

Arizona Baby mugarria izan da espainiar musikaren historian. Soinu-zorroztasuna eta oinarritzko filosofia dira taldearen ezaugarri nagusiak. Nortasun horrekin, aitzindariak izan ziren Espainian neofolk akustikoan eta bizardun mutilen irudian (haien ostean hasi ziren agertzen bizarrak Espainiako pop musikan), eta benetako iraultza eragin zuten indie-rock estiloko musikan, debutatu zutenean. Horri esker, talde hasiberri onenaren saria eman zioten 2010ean. Ordutik, etengabeak izan dira aintzatespenak eta, batik bat, zuzeneko emanaldiak Espainian eta atzerrian. Izan ere, Arizona Babyk pilo bat herrialdetara eraman du bere musika: Greziara, AEBra, Erresuma Batura, Hungariara, Alemaniara, Mexikora... baita Albaniara ere. Horri guztiari Los Coronas taldearekin izandako abentura —Corizonas ikusgarriak— gehitu behar zaio. Azken urteotan, Arizona Babyk batez beste 50-60 kontzertu eman ditu urtean, eta Espainiako jaialdi nagusietan jo du (BBK Live, Arenal Sound, Sonorama, Low, Port America eta abarretan).

Arizona Baby han markatu du un antes y un después en la música española. Con su indeleble sello de marca de austeridad sonora y filosofía básica, inauguraron en España el neofolk acústico, la imagen barbuda (justo tras ellos aparecieron las barbas en el pop nacional) y dieron un revolcón al indie-rock patrio con su fulminante debut, que les valió el premio a Grupo Revelación 2010. Desde entonces no han parado de recibir reconocimiento y sobre todo de tocar en directo. En España y fuera. Arizona Baby ha llevado su música a un montón de países: Grecia, USA, Reino Unido, Hungría, Alemania, México... hasta a Albania. Eso sin contar su aventura conjunta con Los Coronas, los espectaculares Corizonas. En los últimos años Arizona Baby han dado una media de 50/60 conciertos anuales y han actuado en los mas grandes festivales nacionales (BBK Live, Arenal Sound, Sonorama, Low, Port América, etc).

KONTZERTUA / CONCIERTO



MARTXOAREN 5^{ean} MARZO

ANTZERKIA / TEATRO

¿Qué fue de Ana García?.

COMPañÍA JOVEN DE PABELLÓN 6

A las 19:00etan | Sarrera/Entrada: 10€

Egilea /Autor: Javier Liñera Zuzendaria / Dirección: Borja Ruiz Antezleak /Intérpretes: Ainhoa Artetxe Uriarte, Nagore Cenizo-Arroyo, Graciela Doniz, Itxaso Gil, Jontxu Martínez Zarrabeitia, Aritz Mendiola, Leire Ormazabal, Pelayo Serrano, Aitor Vildosola Gutiérrez. Iraupena / Duración: 80 min.



Aktore talde batek Ana García ezagutzen dute, udak, Vinarós, Castellóko herri batean igarotzen zituen Bilboko neska bat. Batzuek Ana bera ezagutzen zuten, beste batzuek Vinarós herria eta batzuek Ana eta Vinarós. Ana herrian hil zen eta talde horrek zer gertatu zitzaion jakin nahi du. Ikerketa honek tiragailu legez erabiltzeko balio digu “gauzaez” gorputzen: emakume-, haur-, trans- eta abarren -gorputz bakan horienganako indarkeriaz hitz egin ahal izateko.

Herri eta hirietan gertatu den gorputz horien ehizaz ari gara. Eta ehiza horretan beti daude arkumeak eta otsoak, korrika egin behar dutenak eta jazartzen dituztenak.

Un grupo de actrices y actores conoce a Ana García, una chica de Bilbao que pasaba sus veranos en un pueblo de Castellón, Vinarós. Algunas conocían a Ana, otras Vinarós y hay quienes conocían a Ana y Vinarós. Ana murió en el pueblo y este elenco quiere saber qué fue de ella. Esta investigación nos sirve como disparadero para poder hablar de la violencia que se ejerce sobre los cuerpos “inútiles”, esos raros cuerpos de mujeres, niños, niñas, trans, y un largo etcétera.

Hablamos de la caza de esos cuerpos que se ha dado en pueblos y ciudades. Y en esta caza siempre hay corderos y lobos, quienes corren y quienes persiguen.

MARTXOAREN 12^{an} MARZO

KONTZERTUA / CONCIERTO

Marwan

A las 19:00etan | Sarrera/Entrada: 12€

Ahoz ahokoa eta bakarkako artista legez egin duen lan etengabea izan dira Marwan Espainiako eta Latinoamerikako autore-kantuarren ahots nagusietako bat izatera eraman dutenak.

Bere erreferenteen jarraitzaile leiala izanik (Sabina, Serrat, Aute, Silvio Rodríguez, Ismael Serrano, Jorge Drexler, Pedro Guerra) bere doinu propioa lantzen jakin izan du, bere maisuengan azaltzen diren zenbait alderdi apur bat urrunago eramanez, batez ere “El viejo boxeador” (2020) bere azken diskoan. Disko horretan bere asmoak alde batera utzi eta bera den artistari entregatzen dio betiko bere burua: askotariko istorioen kontalaria da, gizakiaren existentziaren eta bizi den munduaren inguruko istorioak, bere estilo eta soinu berezikoak, edertasunez beteak.

El boca a boca y su trabajo incesante como artista independiente fueron los que han llevado a Marwan a ser una de las principales voces de la canción de autor en España y Latinoamérica.

Fiel seguidor de sus referentes (Sabina, Serrat, Aute, Silvio Rodríguez, Ismael Serrano, Jorge Drexler, Pedro Guerra...) ha sabido cultivarse un sonido propio, llevando un poco más lejos algunos de los aspectos que ya aparecen en sus maestros, sobre todo con su último disco, “El viejo boxeador” (2020), donde abandona las pretensiones y se entrega definitivamente al artista que es: un narrador de historias muy diversas que pivotan alrededor de la existencia del ser humano y el mundo en el que vive, con un estilo y sonido propios inconfundibles y llenos de belleza.



MARTXOAREN 26ⁿ MARZO

Amaren Intxaurrak.

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

A las 17:00 y a las 19:00etan | Sarrera/Entrada: 6€

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA /
ESPECTÁCULO INFANTIL
(Euskaraz)

Pirritx eta Porrotx Marimototsekin elkartuko dira parke magikoan. Amatxo Loreto duela 3 urte hil zen. Intxaurrondoa landatu zuten amatxoren oroimenez, bere agurrean. Gaur intxaurrondoko emandako lehen fruituak dastatuko dituzte. Intxaurrak jan ahala, Loretoekin bizitako abenturak partekatuko dituzte haur eta familiekin.

Dolua igarota, gaur pozik daude pailazoak, bera-ekin akordatzen diren aldiro irria ateratzen zaie-lako ezpainetan, intxaur zaporeko irria.

Marimototsek gordeak ditu amak emandako haziak, parkeko landare eta lore magiko guztiak. Gaurkoa egun aproposa da denok elkarrekin hazi horiek ereiteko... mundu berri bat sortzera goaz!

Pirritx eta Porrotx se unen en el parque mágico con Marimotots. Amatxo Loreto murió hace 3 años. En homenaje a ella plantarán un nogal en su despedida. Hoy degustarán los primeros frutos de aquel nogal. A medida que comen las nueces, compartirán con niños y familias sus aventuras con Loreto.

Tras el duelo, hoy los payasos están contentos porque cada vez que la recuerdan aflora la sonrisa en sus labios, una sonrisa con sabor a nuez.

Marimotots conserva las semillas de todas las plantas y flores mágicas del parque, que le dió su madre. Hoy es un buen día para sembrar juntos esas semillas... ¡Vamos a crear un mundo nuevo!



APIRILAREN 16^{an} ABRIL

ANTZERKIA / TEATRO

Las aventuras del buen soldado Svejk.

SUTEGI ANTZERKIA

A las 19:00etan Sarrera/Entrada 8€

Egilea /Autor: Jaroslav Jasek Zuzendaria / Dirección: Juanma Rodríguez Antzezleak / Intérpretes: Garazi Beitia, Ainhoa Carmona, Manu Carrillo, Ayose Cruz, Ángel Gutti, Ricardo Izagirre, Piedi Kortazar, Pilar Medina y Sindy Otero Iraupena / Duración: 75 min.



“Las aventuras del Buen Soldado Svejk” Munduko Lehen Gerran kokatutako alegatu antibelazista bat da.

Protagonistaren izaera lasaiak eta maltzurkeriak gainerakoak barregarritasunaren eta zentzugabekeriaren ispluaren aurrean jartzen ditu, indar militarrek eta gizartea oro har deslegitimatu.

Sutegi Antzerkiak publikoari tarte on bat pasatzeko goz ekin dio proiektuari, eta lanak kontatzen digunaren zein zatitan koka daitekeen hausnartu ahal izango du.

Estilo eta genero austro-hungariarreko ikuskizuna da.

“Las aventuras del Buen Soldado Svejk” es un alegato antibelicista situado en la Primera Guerra Mundial.

El carácter tranquilo y la astucia del protagonista coloca al resto frente al espejo del ridículo y la sinrazón, deslegitimando las fuerzas militares y la sociedad en general.

Sutegi Antzerkia emprende este proyecto con ganas de que el público pase un buen rato y pueda reflexionar sobre en qué parte, de lo que nos cuenta la obra, se podría situar.

Un espectáculo de estilo-género austro-húngaro.

APIRILAREN **23**^{an} ABRIL

Carmen Boza

A las 19:00etan | Sarrera/Entrada 10€

Carmen Boza kantautorea, azken urteetako proposamen femenino espainiar interesgarrien eta proiektzio handikotzat jotzen da. Carmenek YouTube plataformara bideoak igota ekin zion musika-ibilbideari, eta bertan, pixkanaka-pixkanaka, ikusle-base handi bat finkatu zuen, gaur egun Carmenen urratsak doan lekura jarraitzen dituen.

Ahoz ahokoak ipini zuen bere musika entzungai kantautoreen zirkuituan: Malagako “La Botica”n, Cadizeko Café Payn, Madrilgo Galileo Aretoan...

Lehenengo bi estudio-album egin zituen eta ondoren, 2019an, eta Madrilgo La Riviera areto mitikoan eskusiban aurkeztuta, “Un golpe de suerte” singlea kaleratu zuen, kantautoreak berak bere gelan, iragazkirik gabe, grabatu, ekoitzi eta nahasia. Lan horretan artistak sampleo munduarekin bat egiten du eta industriaren proposamen femenino balioanitz eta aldakorrenetako moduan finkatu da. 2020ko uztailaren 29an, “La Grieta” argitaratu zuen, Carmenek konposatu eta ekoiztiko bere lanik berriena. Kantu gozo horrek puntu itsuaren ziurgabetasuna aztertzen du eta bere bizi-interesak berresten ditu nolabait, bere pentamenduak eta kezak proiektatzearekin batera.

Carmen Boza esta considerada como una de las propuestas femeninas españolas más interesantes y con más proyección de los últimos años. Carmen empezó su carrera musical subiendo vídeos a la plataforma YouTube donde poco a poco fue consolidando una gran base de público que a día de hoy sigue sus pasos allá por donde va.

El boca a boca hizo que su música empezara a sonar en pequeños locales del circuito de cantautores como La Botica en Málaga, Café Pay Pay en Cádiz, Sala Galileo de Madrid...

Tras dos primeros álbumes de estudio, es en 2019, y presentándolo en exclusiva en la mítica sala La Riviera de Madrid, cuando la cantautora lanza el single “Un golpe de suerte” grabado, producido y mezclado por ella misma en su habitación, sin filtros, donde la artista coquetea con el mundo del sampleo y se consolida como una de las propuestas femeninas más polivalentes y versátiles de la industria independiente. El 29 de julio del 2020 vio la luz “La Grieta”, su trabajo más reciente compuesto y producido por Carmen, una canción dulce que explora la incertidumbre del punto ciego y, de alguna manera, es una reafirmación en sus intereses vitales y una proyección de su pensamientos e inquietudes.

KONTZERTUA / CONCIERTO



APIRILAREN **30**ean ABRIL

ANTZERKIA / TEATRO

El patio de mi casa. PEZ LIMBO TEATRO

A las 19:00etan | Sarrera/Entrada: 10 €

Egilea eta zuzendaria / Autora y directora: María Goiricelaya. Antzeleak / Intérpretes: Iñake Irastorza, Nagore González, Josune Vélez de Menizabal, Haizea Baiges, Martxelo Rubio, Jontxu Martínez y Egoitz Sánchez. Iraupena / Duración: 80 min.



Euskal Herrian, ikastetxe bateko jolastokian, zazpi lagun jolasean ari dira. Ez dute elkar ezagutzen, baina hor daude, eremu horretan, zerbaitengatik.

Horrela hasten da «EL PATIO DE MI CASA» ikuskizuna. Inoiz hizpide izaten ez dugun horretaz hitz egiten du: euskal kontakizunaz —ez da bat, asko baizik— eta gure iritzi politikoa ezagutarazteko beldurraz, odolak pisu handia baitu oraindik herrialde honetan.

Bizikidetza zaila izan da beti Euskal Herrian. Izuaren urteek era askotako min asko eragin zituzten. Orain aurrera begiratu behar dugu, etorkizunera. Hausnarketa eta autokritika egin behar dugu. Baina, batez ere, elkar aurkitu behar dugu. Horixe da EL PATIO: bizikidetzako eremua, non ideologia ezberdinetako pertsonak elkarrekin bizi diren. Enpatia-ariketa da, askatasunari eta giza eskubideei eskainitako kanta. Besteari begietara begiratuta zauriak sendatu nahi dituen antzerki-ikuskizuna.

En el País Vasco, en el patio de un colegio. Siete personas juegan. No se conocen de nada, pero están ahí, en ese espacio... por algún motivo.

Este el arranque de “EL PATIO DE MI CASA”, un espectáculo que habla de aquello de lo que nunca hablamos: del relato vasco, que no es uno, sino muchos, y del miedo a revelar nuestra condición política dentro de un territorio donde hoy todavía pesa la sangre.

La convivencia en Euskal Herria siempre ha sido compleja. Los años de terror, causaron muchos y muy diversos dolores. Hoy toca mirar hacia delante, al futuro. Toca hacer reflexión y autocrítica. Pero sobre todo, toca encontrarnos. Esto es EL PATIO: un espacio de convivencia donde personas de diversas ideologías conviven, un ejercicio de empatía, un canto a la libertad y a los derechos humanos. Un espectáculo teatral que quiere sanar heridas mirando al otro a los ojos.

MAIATZAREN 7an MAYO

ANTZERKIA / TEATRO

Los olivos pálidos. LA RED TEATRO

A las 19:00etan | Sarrera/Entrada: 8 €

Egilea / Autor: Juanma Cano. Zuzendaritza / Dirección: Mikel Areitourtena Antzeleak / Intérpretes: Maite Lorenzo, Juanma Cano, Nerea Ariznabarreta y Enrique "El Vaca" Iraupena / Duración: 60 min.

Federico García Lorca kultura unibertsa-laren irudi erakargarria eta magikoa da oraindik ere, gerrateen zentzugabekeria-ren sinbolo bihurtutako autorea baita. La Red Teatroaren muntaketa berri honek Granadako poeta eta dramaturgoarekin topo egiten laguntzen du, Fraskita, Bernarda Albaren pertsonaia inspiratuko zuen emakumearen bizitzaz haratago. Ez da laztasunik gabeko topaketa, alderantziz baizik, biek ere "bi Espainiak" deitu ge-nezakeenaren sinbolo baitira.

Federico García Lorca continúa siendo una atractiva y mágica figura de la cultura universal, un autor convertido en símbolo de la sinrazón de las guerras. El nuevo montaje de La Red Teatro hace posible un encuentro del poeta y dramaturgo granadino, más allá de la vida, con Fraskita, la mujer que inspirase al personaje de Bernarda Alba. No es un encuentro sin asperezas, más bien al contrario, ya que ambos simbolizan lo que podríamos denominar 'las dos Españas'.



MAIATZAREN 14an MAYO

ANTZERKIA / TEATRO
(Euskaraz)

Ez dok ero. TARTEAN

A las 19:00etan | Sarrera/Entrada: 10 €

Egilea / Autor: Patxo Telleria Zuzendaritza / Dirección: Jokin Oreg Antzezleak / Intérpretes: Patxo Telleria eta Jokin Oregi Iraupena / Duración: 90 min.

"Mikelote eta Pantxo" bikote artistikoa desegin da. Haien formula komikoa gastatua zegoen, eta belaunaldi berriek haien tokia okupatu dute.

Mikelotek ez du bukaera onartu nahi. Antzerkiaren pozoia sakon errotuta dago bere zainetan. Eta pozo horrek burua galtzeraino eramango du.

Egun batean Mikelote, "antzerkilari andante" estrefalaria, Pantxoren bila joango da, trasteak prestatu eta Euskal Herrian barna joateko, herriz herri antzeztera, "Euskal Antzerkiak Behar Gaitu" uste inozoarekin. Horrela ibilbide fantastiko bat egingo dute Euskal Herrian zehar, hamaika abentura ero biziz. Mikeloteren imaginazioak sorturiko pertsonaia harrigarriak ezagutu eta egoera korapilatsuetan endredatuko dira.

Se ha disuelto el dúo artístico "Mikelote eta Pantxo". Su fórmula cómica estaba gastada y las nuevas generaciones han ocupado su lugar.

Mikelote no quiere aceptar el final. El veneno del teatro está profundamente arraigado en sus entrañas, y ese veneno le llevará a perder la cabeza.

Un día Mikelote, el estrefalario "dramaturgo andante", va a buscar a Pantxo para preparar los trastos e ir por los pueblos de Euskal Herria a representar, con la ingenua convicción de que "El teatro vasco nos necesita". Así harán un recorrido fantástico por Euskal Herria, viviendo innumerables aventuras locas. Conocerán a personajes sorprendentes creados por la imaginación de Mikelote y se enredarán en complicadas situaciones.



OSASUN-SEGURTASUNEN NEURRIAK

Bizi dugun osasun-egoera dela eta, Kultura Sailak zenbait neurri jarriko ditu abian, jarduerak modu seguruan egin ahal izateko. Zuen ulermenera eta laguntzara jotzen dugu, kulturaz segurtasun-baldintza osoetan gozatzeko.

1. Pertsona bakoitzak bere maskara ekarri beharko du Ermua Antzokira sartu ahal izateko.
2. Gela hidroalkoholikoak erabili areto-ra sartzean.
3. 10 urtetik beherakoek heldu batekin etorri beharko dute.
4. Sarrerak ez dira zenbakituko eta Ermua Antzokiko langileek esleituko dituzte, iristen diren ordenaren arabera.
5. Behar besteko aurrerapenarekin etorri ekitaldira, sarrera ohi baino motelagoa izango baita.
6. Saia zaitez sarrerak erosten bitarteko digitalen bidez edo aldez aurretik, txarteldegian pilaketarik egon ez dadin.
7. 1,5 metroko distantzia mantenduko da pertsonen artean, elkarrekin etortzen zareten pertsona-taldeak izan ezik.
8. Instalaziora sartzean, baita leihatilaren ilaran ere, pertsonen eta taldeen arteko 1,5 metroko distantzia errespetatu.
9. Komunetan ere kontuan hartu beharko da gehieneko edukiera: pertsona bakarra komuna bakoitzeko, eta bat bi konketa bakoitzeko.
10. Ikuskizuna amaitutakoan, zuen eserleketan egon zaitezten eskatzen dizuegu, gure langileek barrutiko irteera mailaka antolatu ahal izan dezaten.
11. Irtetean, saihestu taldeak egitea Antzokiko irteeran edo kanpoan.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

MEDIDAS DE SEGURIDAD SANITARIAS

Debido a la situación sanitaria que vivimos desde el Departamento de Cultura vamos a poner en marcha una serie de medidas que posibiliten el desarrollo de las actividades de una manera segura. Apelamos a vuestra comprensión y ayuda para volver a disfrutar de la cultura en plenas condiciones de seguridad.

1. Cada persona habrá de traer su mascarilla para poder acceder al Ermua Antzokia.
2. Utiliza los geles hidroalcohólicos al acceder al recinto.
3. Los/as menores de 10 años deberán venir acompañados/as de una persona adulta.
4. Las entradas no serán numeradas y serán asignadas por el personal del Ermua Antzokia según el orden de llegada.
5. Acude al evento con la antelación suficiente dado que el acceso será más lento de lo habitual.
6. Procura hacer la compra de entradas por medios digitales o por adelantado para evitar aglomeraciones en la taquilla.
7. Se mantendrá una distancia de 1,5 metros entre localidades, con excepción de los grupos de personas que vengáis juntas.
8. Durante el acceso a la instalación, así como en la fila de la taquilla, respeta igualmente la distancia de 1,5 metros entre personas y grupos.
9. El aforo máximo habrá de tenerse en cuenta también en los aseos: una sola persona por sanitario y una por cada dos lavabos.
10. Una vez finalizado el espectáculo os pedimos que permanezcáis en vuestros asientos para que nuestro personal pueda organizar la salida del recinto de manera escalonada.
11. Al salir evita formar grupos y corrillos en el hall del Antzoki o en el exterior del mismo

Muchas gracias por tu ayuda

Sarrerak | Entradas

Sarrerak aurretik erosteko: Abenduaren 16tik

BBK-ko orotako kutxazainetan edo www.bbk.es

- **Lobiano Kultur Gunean**, Goienkale 10
Astelehentik ostiralera 9:00etatik 21:00etara

Venta anticipada de entradas: Desde el 16 de diciembre

- **En los cajeros multiservicios** de la BBK o en www.bbk.es
- **En Lobiano Kultur Gunea**, Goienkale 10
De lunes a viernes de 9:00h a 21:00h

Helbidea | Dirección

Iparragirre z/g - Ermua - 48260 (Bizkaia) | Tfn. 943 708 700

www.ermua.es/ermuantzokia

ermuantzokia@udalermua.net



AYUNTAMIENTO DE ERMUA
ERMUKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



ermuapuntocultural
ermuapuntokulturala

ermuantzokia.